



Balorezko proposamena

Bidaiariak Donostiara etortzen direnean, ostatuetan sukaldarik ez izatea da arazo handienetariko bat. Donostia ezaguna da bere bizi-kostu handiagatik, batez ere gastronomiari dagokionez. Jatetxeak oso garestiak izaten dira, eta hori erronka handia da motxiladunentzat eta bidaiari gazteentzat, egonaldian gastuak murrizteko moduak bilatzen baitituzte. Behar hau asetu nahian zerbitzu hau eskaintzeko ideia izan dugu: bidaiariek beren otorduak prestatzeko gune bat ireki nahi dugu, etxean egongo balira bezala, jateko aukera eskainiz, prezio eskuragarriagoan.

Gure helburua, aukera praktiko eta ekonomiko bat eskaintzea da, bidaiariek sukaldaritzako esperientzia paregabeaz gozatzeko aukera izan dezaten, azken finean modu merkeago batean bidaiatu ahal izateko. Gure zerbitzuarekin, jatetxeen prezio garestiak saihestu ditzakete eta, aldi berean, beren kultura gastronomikoa beste bidaiari batzuekin partekatu. Sukaldaritzaren bidez beste kulturetatik ikasteko aukera izango dute gure bezeroek.

1. Lehiakideengatik desberdintzea

- Ideia berritzailea da, lehiakide zuzenik ez daukagu, baina zeharkako lehiakiderik badaukagu, jatetxeak bereiziki.

a. Lana erraztea

- i. Bezeroak gure zerbitzua uzterakoan, erabilitako tresnak hornitutako ontzi-garbigailuetan jarri beharko ditu. Horrek app batekin funtzionatuko du. App horrek, erreserba egiterakoan, ontzi-garbigailua aktibatzen duen kode bat emango dizu, eta, aktibatzean, atera ahal izateko kode bat jasoko duzu.

b. Diseinua

- i. Gure lokala modernoa eta sinplea izatea gustatuko



litzaiguke eta ezinbestekoa da itxura freskoa, garbia eta joera berriak erakustea.

c. Prezioa

- i. Prezioa jatetxeekin alderatuz murriztua da, ez duzulako ordaintzen eskulanik, autozerbitzua dela eta
Bakarrik sukaldearen erabilera, gainera harpidetzekin dirua aurreztu dezakezu

d. Arriskuen murrizketa

- i. Segurantzaren enpresei esker, lapurreten arriskuak murriztu egingo ditugu, kamarak ipiniko ditugu lokalean zehar
- ii. Gainera zeliakoei murriztuko dugu, haiei zerbitzu espezializatu bat, non haien berezitasunei egokituko gara

e. Eskuragarritasuna

- i. Merkatuaren analisia egingo dugu jakiteko ea zein orduetan dauzkagun bezero gehien eta gutxien. Behaketa honen ondoren ordutegia egiteko gai izango gara.
- ii. Lokala zentroan ipiniko dugu, bezeroak gertu izanagatik eta horrela eskuragarri izateko

